

Kontingentzia-plana

IKTekin zerikusia izan dezaketen gorabeherak aurreikusteko, adibidez, pazienteei osasun-laguntza egokia emateko informazio-sistemetara ezin sartzea, kontingentzia-plan bat prestatu da, Arabako ESIko zerbitzuen premia larrienak asetzeko.


Asistentzia hori eta gerta daitezkeen gorabeherak bermatzeko kritikotzat jotzen diren sistemak identifikatu dira, eta sistema informatiko korporatiboetako hutsegite-mailak estaltzen dituzten larrialdietarako irtenbideak ezarri dira.

Larrialdietan operatibo mantendu behar den laguntza-zerbitzurako garrantzitsutzat eta beharrezkotzat jotzen den informazioa eskuragarri egongo da:

- **Lokalean, larrialdi guztizkotzat edo kontingentzia-ekipotzat identifikatutako ekipotetan (gainbegiraleak, etab.).**
- **Sarean Kontingentzia-Plana duten PCetan.**

Kontingentzia-ekipoen ezaugarriak:

- “KONTINGENTZIA” etiketa gorria dute.
- Lokalean inprimagailu bat dute (kable bidez konektatua), LPT1 edo Kontingentzia izenekoak, informazioa inprimatu behar bada.
- **Beti piztuta egon behar dute, bestela ezingo baita inolako informaziorik kopiatu. Berrito hastea komeni da, baina ez itzaltzea.**
- Menu edo sarbide bat izango dute **[08] Kontingentzia Plana**, eta bertan informazio hau argitaratuko da:
 - Pazienteen preskripzioa.
 - Hodei – Historia kliniko laburtua.
 - Honako hauen erroldak sartzen dira: larrialdiak, ospitalizazioa, kanpo-kontsultak, etxeko ospitalizazioa, eguneko ospitalea, bloke kirurgikoa eta Lehen Mailako Arreta.
 - Baimen Informatuak.
 - Txantiloak.
 - Telefono-luzapen kritikoak eta biziraupenekoak.
 - Erabiltzailearen eskuliburua.



Kontingentzia-planari buruzko informazio zehatza eskuragarri dago helbide honetan: **Hasiera → [08] Kontingentzia-plana → Erabiltzailearen eskuliburua**

Informazioa eskuratzeko eskema, gerta daitezkeen akats-mailen arabera:

	1. maila – Ospitale Sarea Operatibo	Nivel 2 – Ospitale Sarea Ez Operatibo
Informazio-sistemak		
Sareko unitateak		
Kontingentzia-informazioa	 PC estandarra + PC Etiketa Gorria	 PC Etiketa Gorria

- I. maila – Ospitaleko sarea operatibo

Sarerako sarbidea egongo litzateke, baina ez jarduera asistentzialaren ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren informazio-sistema batzuetarako.

- II. maila. Ospitaleko sarea ez dabil

Informazio sistemarik ez da eskuragarri egongo. Kasu horretan, informazioa **kontingentzia-ekipo** gisa konfiguratzen diren ekipoetan soilik egongo da erabilgarri.